

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Antonio Pérez Delgado

Burceña-Barakaldon jaio zen 1960an.

Prestakuntza akademikoa:

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua, Euskal Herriko Unibertsitatean.

Lan-esperientzia:

1985ean, Bizkaiko Foru Aldundian 6 hilabetez lan egin zuen ekonomilari gisa, eta bere eginkizunak Barrikako Udalean bete zituen. 1986ko abenduan hasi zuen Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionario gisa zuen karrera profesionala, Ogasun eta Finantza Saileko Zentsu-agente Fiskalen kidegoari egindako oposizioa gainditu ondoren. 1998ko urriaren 1ean Finantza Ikuskatzaile lanpostua oposizio bidez eskuratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiko foru ikuskatzaileen lehenengo oposizioko probak gainditu zituelako. 2004ko apirilaren 1ean izendatu zuten Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzako zuzendariorde, orain arte jardun baitu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Batzordean (2013tik gaur egun arte).

Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitateko Tributazioko Especialista Berezko Tituluan (2002tik 2012ra) eta Bilboko Merkataritza Ganberako Zerga Aholkularitzako Masterrean, non Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin eta Sozietateen gaineko Zergarekin lotutako gaiak irakasten dituen (2014tik gaur arte).

Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketa Masterreko irakaslea, non Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin lotutako irakasgaiak ematen dituen (2016tik gaur egun arte).

Foru Zerga Zuzenbideko aldizkari espezializatueta kolaboratzailea da, eta zerga-araudi orokorraren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Kontzertu Ekonomikoaren inguruko hainbat gairi buruzko artikuluak argitaratu ditu.

Hizkuntzak:

Euskara: ahozko eta idatzizko maila

Titulazioa: Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen du

Ingelesa: ahozko eta idatzizko batez besteko maila.

